

Kami hitzak papera esan nahi du. Kamishibai hitzak paperezko antzerkigintza. Ipuinak kontatzeko teknika bat da kamishibai, beraz.

Japonian sortu zen duela 70 urte inguru. 1930 hamarkadan, eta bereziki azkartu da azken hamar urteotan. Japonian kamishibai-aren teoriarik sakondu dute, eta azkar ari da zabaltzen mundura: Kamishibaiaren artea oso hedatuta dago Asiako hainbat herritan, adibidez, Vietnamen eta Laosen; Ameriketara, bereziki Estatu Batuetara; Europa Frantziara, Alemaniara, Suitzara, Herbeheretara eta, orain, Euskal Herriara.

Eskolan, bereziki Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan erabil daitezke, eta Japoniako ipuinak ez ezik mundu osoko ipuinak ere kontatzeko eta lantzeko erabil daitezke. Kamishibaia ez du betiko liburua ordezkatzeko; beste teknika bat da, betiko irudi-liburuaren osagarria.

### **Kamishibai-aren ezaugarriak**

Hiru ezaugarri edo hiru giltzarri ditu kamishibai-ak:

- 1) Beti erabiltzen dugu '**antzeztokia**' kamishibai egiteko: **-butai-** delakoa.
- 2) Kamishibai-ak istorioa eta irudiak ditu, umeentzako liburuek bezala, baina kamishibaia egiteko beti behar da **narratzailea**, entzuleei begira jartzen dena eta entzuleei istorioa kontatzen diena.
- 3) Kamishibai paper zurruneko orrien bidez egiten da, orriok aurrean marrazkia eta atzean testua dituztenak. Orriak atera eta sartu egin behar dira, hortaz, **mugimendua** ere garrantzitsua da.

Butaiaren atexkak zabaltzean **egiazko mundutik istorioaren mundurako jauzia egiten dute umeek** baina kontalaria entzuleei begira dagoenez, entzuleek badakite kontalaria egiazko munduan dutela. Kamishibai-aren bidez umeen kontzentrazioa bermatzen da eta ikus-entzuleei begira izateak ematen dio narratzaileari aparteko aukera komunikazioa gauzatzeko. Narratzailearentzat eroso da istorioa irakurtzen duelako, ez du buruz ikasi beharrik. Umeek istorioa bereganatzen dute, gozatzen dute eta "xarma" sortzen da, "**Kyokan**", elkarreragina, interakzioa, sentimenduen konpartitzea; umeak pozik eta irakasleok ere bai.

Kamishibai-en teknika egokia da hizkuntza lantzeko. Lehenbizi, entzundakoaren ulermena lantzeko; umeek ipuina entzuteaz gain, ipuina bera ikusi ere egiten dute eta horrek asko laguntzen die dena ulertzeko. Narratzailea irakaslea izaten da hasieran baina ikasleak ere narratzaile izan daitezke; testua atzeko aldean dute irakurgai eta eroso sentitzen dira butaiak ematen dien babespean; gure ikasle-narratzaile horien irakurriaren ulermena eta ahoskera lantzeko aukera ezin hobea. Gainera, a posteriori, ikasle guztien artean ipuin berriak sor daitezke kamishibai formatuan, ahozko adierazpena eta idazmena lantzeko.

Sortzeko garaian, kamishibai teknikaren ezaugarriak mugarri izanen ditugu:

- 1.- Kamishibaia ez du azalik; lehen-lehenbiziko orrian bertan behar du hasi; izenburuak argitzen du hasiera dela eta bete-betan sartzeko gara istorioan, bide batez esanda, liburu ilustratuetan ez bezala.
- 2.- Pertsonaia nagusiak erraz ikusten diren modukoak izan behar; ikusleek urrutitik ere ikusteko moduko pertsonaia marraztu behar dira: bata ez du bestea estaliko. *Momotaro* ipuinean argi ikus daitezke kontu hori

3.- Kontatzeko garaian testu narratiboaren ezaugarriak zaindu beharko ditugu; kontuz orainaldi historikoa erabiltzearekin; aditzaren aspektua zaindu behar da.

4.- Marrazkiak diseinatzerakoan, ahalegindu behar da diseinuaren potentzialitateak baliatzen; markotik harantzago doazen lerroak, perspektiba berezi batekin egindako marrazkiak... *Zeruko neskatxaren mantuan* edo *Ahatea errege* ipuinean oso perspektiba bereziak erabili zituzten egileek.

5.- Butaiaren ertzek estaltzen ahal dute orriaren ertza bera; hortaz, ez jarri ezer funtsezkorik orriaren ertzean.

6.- Dakizukeenez, kamishibaiaren ezaugarri nagusia hauxe da; orri bati dagokion testua ez dago orri horren beraren atzealdean, hurrengoaren atzealdean baizik; 2. orriaren testua 1go. orriaren atze aldean dago, eta horrela beti.

7.- Aurrekoa horrela bada, orriaren erdia pasatu eta bertan irakurtzeko gelditzen zarenean, irakurri behar duzun testua aurreko orrian beharko duzu izan. Horren adibidea duzu *Eta monjeak sorgina jan zuen* ipuinean

8.- Funtsezkoa ez dena, ez jarri marrazkietan.

9.- Istorioak zuzena eta sinplea egin behar duzu; narrazio psikologiko aldrebesak saihestu.

10.- Istorioa eraman klimaxeraino; ipuinaren ohiko estrukturak ongi funtzionatzen du: hasiera, korapiloa eta bukaera.

11.- Esaldi laburrak –ez motzak, eskasak- ulergarriagoak izaten dira luzeak baino.

Egia ala gezurra; begian artean sudurra.